



PRENTSA-OHARRA

Santa Maria Katedralean, Ahotsak Elizpean Musika Koraleko zikloaren 11. edizioa izango da

- Aurtan, guztira 20 taldek hartuko dute parte 5 kontzertutan, eta kontzertuak maiatzeko ostiral guztietan izango dira, maiatzaren 9tik hasita. Ekainaren 13an, zikloa itxiko duen azken kontzertua eskainiko da.
- Lurraldeko kultur agendan finkatuta dago programa, eta herritarren aldetik harrera handia du.

Gasteizen, 2025eko maiatzaren 6an.- [Santa Maria Katedrala Fundazioak](#) Ahotsak Elizpean ekimenaren **edizio berria** aurkeztu du, Lurraldeko taldeak protagonista dituen musika koraleko zikloa; aurtengoa **11.** edizioa izango da.

Programa finkatuta dago Fundazioaren, hiriaren eta Arabako kultura-agendan, urtero, herritar ugari erakartzen baitu maiatzean eta ekainean egiten diren kontzertuez gozatzen. Oraingo honetan, programa **maiatzaren 9an, ostirala**, hasiko da, **Amalur Abesbatza, Ukanta Abesbatza, Enol Korala eta Badaya Abesbatzaren emanaldiarekin**.

Ahotsen hurrengo hitzordua **maiatzaren 16an** izango da, eta protagonistak **Ausartak Abesbatza, Arantzabela Abesbatza, Tantak Abestaldea eta Ahots Argiak Abesbatza** izango dira.

Zikloaren erdian, **Ametsak Abesbatza, Lumina Taldea, Vicente García Abesbatza eta Dultzinea Korala** bilduko dira, **hilaren 23an**.

Azkenik, maiatzeko programa ixteko, **Haritz Hostoa Abesbatza, Kataliturri Abesbatza, Urbano Korua eta Cantacantum Abesbatza** izango ditugu **maiatzaren 30ean**.

Ekainean, berriz, **Abesbatza Ahotsak** izango dira **hilaren 13an**, eta musika koraleko zikloari amaiera emango diote **Maiores Canemus, Gasteizko Lagunak, Gurasoak Korala eta Bi-hotsak Korala** taldeek.

FUNDACIÓN CATEDRAL SANTA MARÍA KATEDRALA FUNDAZIOA

Cuchillería, 93 · 01001 Vitoria-Gasteiz · / www.catedralvitoria.eus

Prentsa / Prensa: Elena Benito - T. +34 94 403 40 50 - Ext.: 2501 - comunicacion@catedralvitoria.eus

Sarrerak

Errezitaldi bakoitzerako sarrera doakoa izango da, baina aurrez gonbidapenak hartu beharko dira Bisitarien Zentroan (Santa Maria Kantoia, 3).

Kontzertuaren asteko astelehen eta asteartetan, Fundatzaileen Zirkuluko kideen eskura jarriko dira sarrerak. Bestalde, herritarrek, oro har, asteazkenetik aurrera jaso ahal izango dituzte kontzertuaren astean.

Kontzertu guztiak Katedralaren Elizpean egingo dira, eta 19:45ean hasiko dira. Jende asko biltzea espero denez, pertsona bakoitzeko bi sarrera banatuko dira.

Ekimenak 11 urteko historia bete du

Santa Maria elizpea bezalako esparru hain berezia hartzen duen musika-topaketa honen urteetako ibilbidean zehar, Lurraldeko Abesbatza heldu guztiek hartu dute parte, eta garai, erregistro eta herrialde ezberdinetako abestien erreperitorioa eskaini diote publikoari, musika korralaren adierazpen guztiak irudikatuz.

Ahotsak Elizpean Santa Maria Katedrala Fundazioak [Arabako Abesbatzen Federazioarekin](#) batera bultzaturiko ekimena da, eta [Laboral Kutxak](#) babesten du.

Musika koraleko beste kontzertu bat maiatzean

Ahotsak Elizpean programatik kanpo, baina baita ere kontzertu korala izanik, beste hitzordu bat izango da Katedralean, **maiatzaren 10ean**, 19:30ean.

Protagonista Bilboko **La Inmaculada abesbatza** izango da, eta **John Leavitten Jai Meza** eskainiko du. Hain zuzen ere, ia 50 urteko historia duen taldea da, Eduardo Lopez de Herediak zuzendua. Gaur egun, 32 ahots misto ditu, eta mota guztietako erreperitorioak jorratzen ditu: zarzuela, opera eta koru sinfonikoa. Sarrera doan izango da edukiera bete arte.

Argazkiak

https://descargascoonic.com/newsletter/Fundacion_Catedral/voces/cartel_Vocesenelportico2025.jpg

https://descargascoonic.com/newsletter/Fundacion_Catedral/voces/programaVocesenelportico2025.jpg

https://descargascoonic.com/newsletter/Fundacion_Catedral/voces/vocesenelportico1.JPG

https://descargascoonic.com/newsletter/Fundacion_Catedral/voces/vocesenelportico2.JPG

https://descargascoonic.com/newsletter/Fundacion_Catedral/voces/vocesenelportico3.JPG

FUNDACIÓN CATEDRAL SANTA MARÍA KATEDRALA FUNDAZIOA

Cuchillería, 93 · 01001 Vitoria-Gasteiz · / www.catedralvitoria.eus

Prentsa / Prensa: Elena Benito - T. +34 94 403 40 50 - Ext.: 2501 - comunicacion@catedralvitoria.eus